

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUPETU DUEN 3 ZENBAKIKO ZERGA ORDENANTZA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udalak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta Zergari buruzko Foru Arauan ezarri denarekin bat etorritz, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga ordenantza honen arabera eskatuko du; eranskinean ezar daitezkeen tarifak ageri dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

II.- ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Hauexek dira Zergaren zerga egitateak:

1.- Bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna, direnak direla ibilgailuen mota eta kategoria.

2.- Zirkulaziorako gai den ibilgailutzat joko da erregistro publiko egokietan matrikulatu dena, baja ematen ez zaion bitartean. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo matrikula dutenak ere zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira.

3.- Jarraikoak ez daude Zergaren kargapean:

a) Modeloaren antzintasuna dela eta, erregistroetan baxa emanda egonik, aparteko kasuetan erakustaldi, lehiaketa eta lasterketetan ibiltzeko baimena jaso lezaketanak, horretara mugaturik daudela.

b) - Trakzio mekanikodun atoiak eta erdiatoiak, zama erabilgarria 750 kg baino gutxiagokoa dutenak.

III.-SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.

4. artikulua

1. Ondoko hauek ez dute zerga ordaindu beharrik izango:

a).- Estatuko, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko eta toki erakundeetako herritarren defentsarako edo segurtasunerako ibilgailu ofizialak.

b).- Atzerriko herrialdeetako ordezkari diplomatikoen, kontsul bulegoetako kideen, agente diplomatikoen eta karrerako kontsul-funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.

Halaber, Espainiar estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta diplomazi estatutua duten haien funtzionario edo kideenak.

c).- Nazioarteko itun edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d).- Anbulantziak eta osasun-laguntzako ibilgailuak eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e).- Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, baldin eta minusbaliotasunen bat duten pertsonen izenean matrikulatuta badaude.

Era berean, Zergaren ordainketatik salbuetsiko dira 14 zerga zaldi duten eta elbarrien izenean dauden eta eurak bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespena inguruabar horiek hala irauten duten artean aplikatuko da, urrituek gidatzen dituzten ibilgailuei zein haiek garraiatzeko erabiltzen direnei dagokienez.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bati ez zaio bat baizik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honakoak joko dira minusbaliotasunen bat duten pertsonatzat:

%33-65 bitarteko minusbaliotasun-gradua onartuta dutela mugitzeko gaitasuna murriztuta duten pertsonak; holakotzat joko dira minusbaliotasun-gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzearen gaineko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako baten daudenak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dituztenak.

% 65eko minusbaliotasun-gradua edo handiagoa daukaten pertsonak.

Aurreko paragrafo bietan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskineko baremoan A letrako mugikortasun murriztuko egoeran daudenei ez zaie aplikatuko 14 zerga-zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurrpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

f).- Hiriko garraio publikorako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiago dituztenak, gidaria barne.

g).- Nekazaritzako Ikuskapenaren Txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

2.- Artikulu honetako 1. atalaren e) eta g) letretan aipatu diren salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin behar dute, eta, horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoa azaldu behar dituzte. Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztatzeko agiria emango zaio interesatuari.

Goiko 1. atalean aipatu den hobaria jaso ahal izateko interesdunek minusbaliotasun egiaztagiria aurkeztu beharko, eskumena duen organoak egindakoa. Horrekin batera, Udal administrazioaren aurrean ibilgailuaren xedea egiaztatu beharko dute.

3. %100eko hobaria izango dute ibilgailu historikoek edo gutxienez hogeita bost urte dituzten ibilgailuek, fabrikazio egunetik zenbatuta, edo, hura ezagutu ezean, lehenengoz matrikulatu zen egunetik edo, bestela, ibilgailu-mota edo -modelo hori fabrikatzeari utzi zitzaionetik zenbatuta.

4.1. Kuotaren %50eko hobaria izango dute ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren arabera kilometroko 110 gramo baino CO₂ gutxiago isurtzen duten

ibilgailuek. Hobaria 2 urtez emango da, betiere, ibilgailuaren lehenengo matrikulaziotik zenbatuta eta ofizioz emango da. 2016ko abenduaren 31n hobariaren titularrak direnek hobariaren baldintzak mantenduko dituzte epea bukatu arte.

4.2. Kuotaren %100eko hobaria izango dute ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren arabera motor elektrikoa duten ibilgailuek, isuri nuluak dituzten ibilgailuek, motor hibridoak dituzten ibilgailuek eta erregai gisa gasa erabiltzen dutenek, gas naturala, petroliotik likidotutako gasak zein bioetanola. Hobaria 2 urtez emango da, betiere, ibilgailuaren lehenengo matrikulaziotik zenbatuta eta ofizioz emango da.

5. Zergaren kuotaren % 50eko hobaria izango dute 5 plaza edo gehiagoko turismoek, baldin eta titularra familiartekoren bat bada eta, indarrean dagoen legeriak adierazitakoari jarraiki, familia ugaria bada. Hobari hau ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio, familia ugari bakoitzeko.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira Bizkiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 34,3. artikuluan ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, zirkulazioko baimenean ibilgailua beraien izenean agertuz gero.

V. KUOTA

6. artikulua.

1.- Zerga tarifa eranskinean agertzen den taularen arabera eskatuko da:

2.- Ibilgailu mota zehazteko, kontuan hartuko da maiatzaren 15eko 75/1990 Foru Dekretuan xedatutakoa eta gainera kontuan hartuko dira ondoko arauak ere:

a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: pertsonak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, zenbait eserleku eta kristal kendu zaizkienak, ateen neurriak edota kokapena aldatu, eta bestelako aldaketak egin zaizkienak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu gabe. Furgonetengatik, turismoak balira bezala ordainduko da Zerga, euren zerga-potentziaren arabera, ondoko kasuetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barne, garraiatzeko gaiturik badago, Zergak autobusa balitz bezala ordaindu beharko luke.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badu, Zergak kamioia balitz bezala ordainduko luke.

b) Zerga honen ondoreetarako, motogurdiak motozikletatzat joko dira eta, beraz, euren zilindradaren edukieraren arabera ordainduko da Zerga.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, Zergak aldi berean eta bereiz kargatuko ditu arraste-indarra duen ibilgailua eta hark herrestan daramatzen atoiak eta erdiatoiak.

d) Edukiera dela-eta matrikulatu beharrik ez duten ziklomotorrak, atoiak eta erdiatoiak zirkulatzeko gai diren ibilgailutzat joko dira Industria Ordezkaritzak horren ziurtagiria ematen duenetik, edo ibilgailua zirkulatzeko hasten denetik, kasuan kasukoa.

e) Makina autopropultsatuengatik, alegia, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batek gainean edo herrestan eraman gabe herri-bidetik berez ibil daitezkeen makinengatik, traktoreei dagozkien tarifak kobratuko dira.

f) Nolanahi ere, tarifetako D) letran agertzen den “traktore” izen orokorrak barne hartzen ditu hala kamioi traktoreak nola “obra eta zerbitzuetako traktoreak”.

g) Auto-karabanek turismoek bezala ordainduko dute.

h) Zerga zalditan definitzen den zerga potentzia Errepide Kodearen 260. artikuluan xedatutakoari jarraituz ezarriko da.

VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

7. artikulua.

1. Zergaldia egutegiko urtea izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Izan ere, horrelakoetan, zergaldia eskuraketaren egunean hasiko da, edo ibilgailuari Trafiko Burutzan baja ematen zaion egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2. Zerga zergaldiko lehen egunean sortuko da.

3. Zergaren kuotaren zenbatekoa hilabete naturaletan banatuko da lehenengo ibilgailua erosi edo behin betiko baja ematen denean, alta edo baja ematen den hila barne.

Berdin-berdin banatuko da kuota, ibilgailua kendu edo lapurtzeagatik baja aldi baterako baldin bada, eta horrela ezarriko da dagokion Erregistro publikoan, aldi baterako aipatu baja jakinarazten den momentutik bertatik.

VII. KUDEAKETA

8. artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri den egoitza zein udalerritan dagoen, hango udalaren eginkizunak izango dira ibilgailu horren zerga

kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta bai zerga-kudeaketan agindutako egintzak berrikustea ere.

9. artikulua.

Udalak autolikidazio-araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.

10. artikulua.

Zerga ordaindu delako frogagiria Udal Administrazioak emandako ordainagiria izango da.

11. artikulua.

Zerga ordaintzeko borondatezko aldia martxoaren 1 eta apirilaren 30 artekoa izango da, bi egun horiek barne; egun horiek larunbata edo jaieguna izango balira, epea, hurrengo astegunera arte luzatuko litzateke.

12. artikulua.

1. Trafiko Burutzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenek, aldeztu aurretik Zerga ordainduta dutela frogatu behar dute. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.

2. Gauza bera egin beharko dute ibilgailuen titularrek Trafiko Burutzari ibilgailuaren eraldaketaren berri ematen diotenean, baldin eta eraldaketak zerga honen ondoretarako ibilgailuak duen kalifikazioa aldatu badu, bai eta ibilgailuaren zirkulazio-baimena eskualdatzen bada edo bertan ageri den egoitza aldatzen bada ere.

3. Trafiko-burutzek ez dute ibilgailuen bajei edo eskualdaketei buruzko espedienterik tramitatuko aldeztu aurretik zerga hau ordainduta dagoela frogatzen ez bazaie.

VIII. XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga indarrean jartzen den egunean Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergan mota bateko nahiz besteko zerga-hobariaren bat dutenek hobariaren onura jasotzen jarraituko dute aipatutako zerga horri dagokionean, hobaria iraungitzen den egunera arte, edo, hobariaren onurak mugaegunik ez badu, 1992ko abenduaren 31ra arte, azken egun hori barne dela.

Bigarrena. Martxoaren 26ko 7/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik, ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauak 2.1.d) artikuluari emandako idazkuntza aplikatzen zen; horrenbestez, hori aplikatu zitzaienean Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita izan diren ibilgailuek 2.1.d) artikuluari 7/2003 Foru Arauak emandako idazkuntza berrian zerga salbuesteko ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, 7/1989 Foru Arauak 2.1.d) artikuluari emandako idazkuntzan ezarritako salbuespena aplikatzeko eskubidea izaten jarraituko dute; beti ere ibilgailuak salbuespena lortzeko ezarri ziren baldintzak betetzen baditu.

IX. AZKEN XEDAPENA

Honako ordenantza hau eranskinean adierazi den egunean onetsi da behin betiko; 2019ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta horrela jarraituko du harik eta aldaraztea edo indargabetzea erabaki arte.

**TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINeko ZERGA ARAUPETU
DUEN 3. ZENBAKIKO ZERGA ORDENANTZA**

ERANSKINA.

| MOTA | TARIFA | DESKRIBAPENA | 2019RAKO ZENBATEKOA |
|-------------|---------------|--|----------------------------|
| MOTORRA | F1 | 125 CC ARTEKO ZILINDRO-BOLUMENDUNAK | 9,50 |
| | F2 | 125 ETA 250 CC ARTEKO ZILINDRO-BOLUMEND | 16,20 |
| | F3 | 250 ETA 500 CC ARTEKO ZILINDRO-BOLUMEND | 32,40 |
| | F4 | 500 ETA 1000 CC ARTEKO ZILINDRO-BOLUMEND | 65,00 |
| | F5 | 1000 CC-TIK GORAKO ZILINDRO-BOLUMENDUNAK | 130,00 |
| TURISMOA | A1 | 8TIK BEHERAKO ZALDI FISKALDUNAK | 26,60 |
| | A2 | 8 ETA 11,99 ARTEKO ZALDI FISKALDUNAK | 73,10 |
| | A3 | 12 ETA 13,99 ARTEKO ZALDI FISKALDUNAK | 144,40 |
| | A4 | 14 ETA 15,99 ARTEKO ZALDI FISKALDUNAK | 193,80 |
| | A5 | 16 ETA 19,99 ARTEKO ZALDI FISKALDUNAK | 249,20 |
| | A6 | 20 ZALDI FISKALETIK GORAKOAK | 304,60 |
| KAMIOA | C1 | 999 KG ARTEKO ZAMADUNAK | 87,30 |
| | C2 | 1000 ETA 2999 KG ARTEKO ZAMADUNAK | 172,00 |
| | C3 | 3000 ETA 9999 KG ARTEKO ZAMADUNAK | 244,90 |
| | C4 | 9999 KG-TIK GORAKO ZAMADUNAK | 306,20 |

| MOTA | TARIFA | DESKRIBAPENA | 2019RAKO ZENBATEKOA |
|--------------|--------|------------------------------------|---------------------|
| AUTOBUSA | B1 | 20 PLAZA ARTE | 172,00 |
| | B2 | 21 ETA 50 PLAZA ARTEKOAK | 244,90 |
| | B3 | 50 PLAZATIK GORAKOAK | 306,20 |
| TRAKTOREA | D1 | 16 ZALDI FISKALDUNAK | 36,50 |
| | D2 | 16 ETA 24,99 ARTEKO ZALDI FISKALD. | 57,30 |
| | D3 | 25E ZALDI FISKALETIK GORAKOAK | 172,00 |
| ATOIAK | E1 | 999 KG ARTEKO ZAMADUNAK | 36,50 |
| | E2 | 1000 ETA 2999 KG ARTEKO ZAMADUNAK | 57,30 |
| | E3 | 2999 KG –TIK GORAKO ZAMADUNAK | 172,00 |
| ZIKLOMOTORRA | G1 | ZIKLOMOTORRAK | 9,50 |

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga araupetu duen 3. Udal zerga ordenantzaren aldarazpena (ordenantzari tarifen eranskina gehitu zaio) 2018ko urriaren 25ean onetsi zen behin behinean. Jendaurrean egon den bitartean inork ez duenez haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu behin betiko onetsizat jo da.